

Zuzendu hitzaren hamaika adierak

Amaia Apalauza Olo

Duela gutxi, irrati-esatari batek nire lanbideaz galdetu zidalarik, erantzun nion itzultzailea eta zuzentzailea nintzela. Harriturik, segidan galdetu zidan ea zer zuzentzen nuen, ea ordaintzen ote zidaten zuzentzeagatik, ea zer ikasketa egin behar diren zuzentzaile izateko.

zuzendu, zuzen/zuzendu, zuzentzen

1 du ad. Okerturik-edo dagoena zuzen ezarri. Arbolak mardotu eta lodituak, nork zuzendu, okertuak badaude? Kakana jaurti genuen beste aldera eta zuzendu zen ontzia. Gatoak osatu, herrenak zuzendu. Prestatu bideak Jaunari, zuzendu bideak hari.

2 du ad. Gaizki edo oker dagoena zuzen ezarri. Idazlanak zeuden-zeudenean datoz berriz, hutsik ere zuzendu gabe. Gainerako hitzak aski oker zuzenduak daude. Liburu honetan oker ezarri diren hitzen zuzentzeko bidea. Makurak, diotenez, ezin zuzen daitezkeen horietakoak baitira. Itazkizun gutxi utzi digute aurrekoek, eta utzi diguten gutxia ere aise zuzen eta hobe dezakeguna. Lastima da horroko zuzentzaile horrek liburu zuzendu duen bezain erraz zuzendu izatea; ez dakit, halere, ez ote nukkeen nahiago gauden mundu traketsean bizi, berak zuzendutakoan baino. Haren iritziak zuzenduaz.

3 du ad. Gidatu, norabide jakin batean joanarazi. Ik. bideratu. Zeruko bidean arimak ondo zuzentzea. Artestu itzazu nire egikerak, zuzendu nire ibilkerak. Zuk agindu, zuk zuzendu, eta nik jarraitu, zuk esan, eta nik egin. Pausoak ongi neurtu eta zuzendu beharrenean aurkitzen gara. Hemen aurkituko dituzte euskaldun nekazari eta gazte guztiak irakaste ederrak beren bitzitza zuzentzeko. Haur ginela, gure bitzitza bestek zuzentzen zuten. Badirudi, gainera, itaco madarikaturen batek okertzen zituela—ezin zuzentzen esan—gure pausoak, hitz jatorren bila gehibiltzanean.

4 du ad. Zerbait beste zerbaitetara edo norbaitengana bideratu. Besoa zabaldurik, semeagana zuzendu du hatza. Begiok gugana zuzendu eta eraman galitazuz zuzena. Bihotzak zerurantz zuzendurik, Jaunari eskatzen zioten. Horretara zuzendu zituen, gero ere, bere ahaleginak. Hona orain gure galdera, irakurle guztiak zuzenduz. Tovar jaunaren erantzun bat, Corominas jaunari zuzendua.

5 du ad. Antolatatu. Gauza guztiak biderako zuzenduta, San Paulo beste preso batuekin Erromara ibasoz bidali zuten. Ordurako hire kontuak zuzendu beharho ditak.

6 du ad. Erakunde edo talde baten jarduna, edo egiteko edo lan bat, buru gisa kudeatu. Zeren berak zuzentzen baitu Eliza. Itxastex bat, orkestra bat zuzendu. Arrakasta handiko ontzerki lan bat zuzendu zuten.

7 du ad. Gaiterako bidea utzi edo utzara. Denbora da zuzen gaitzen, horrelakorik gerta ez dadin. Eain senbata litzeke liburu onak zuzendu, ondu eta zeruko bide artzera elkarri dituzten bekatarik. Honeki zuzenduz joango da bekataria bere bisieren. Lehen okerrak ziren bihotzak zuzendu eta lehen lekutak ziren bideak leundu eta zelaituko dira. Miserikordiazko hirugarren obra, huts egiten duena zuzentzen.

8 du ad. Lortu, eskuratu. Nondik edo handik aitzora bat zuzendu beharrene nago. Amak zuzendu zizkion jantzi berrak.

9 du ad. Norbaitengana edo norabait jo. Estatus honetan zuzendu zen Jainkoaren Amagana. Mireioren landexerantz zuzendu zen. Damua zuzentzen da igarotako bekataria, baina osmos etorkizunetara.

10 (Partizipio burutua izenondo gisa). Hori eskerrak, milaka dira zango zuzenduak, betoker sendatuak.

11 (Partizipio burutua izen gisa). Agintari eta mendekoak, zuzendari eta zuzenduak.

Bada, Zuzentzailearen Egunaren harira EIZIEko kideek zuzentzearen gainean gogoeta egiteko eman didaten aukera hau baliatuz, lehenik eta behin, aldarrikatu nahi dut zuzentzaileok bagarela, hemen gaudela eta beharrezkoak garela. Bai, beharrezkoak gara hedabideetan, argialetxeetan, unibertsitateetan, administrazioan eta beste zeinahi esparrutan.

Anjel Lertxundik *Itzuliz usu begiak* saiakeran egin zuen ahalegina gogoan («itzuli guztiak ez dute adiera bera», 16. or.; ikus, halaber, «Adieren testa», 18. or.), *zuzendu* hitzaren adierei erreparatu diet. Hamaika dakartza Euskaltzaindiaren Hiztegiak. Hamar gehi bat. Ez ditut noski hemen denak aletuko, baina hona, hasteko, lehenbiziko biak:

- 1 du ad. Okerturik-edo dagoena zuzen ezarri.
- 2 du ad. Gaizki edo oker dagoena zuzen ezarri.

Gaur goizean, euripean eskolara garaiz iristeko ariketa kimeriko samar batean –motxila, poltsa eta orotariko trepetak beso batetik zintzilika eta bestean alaba hartuta tarrapatata–, aterkia *zuzentzeko* eskatu diot behin eta berriz alabari, zopatuta iritsiko ez baginen. Bai, hori da: *okerturik-edo dagoena zuzen ezarri*.

Ahaleginak ahalegin eta eginak egin osasun-egoera okerbidean dela eta, egindako okerrak *zuzentzeko* neurriak hartu behar lirateke lehenbailehen, ea behingoz zuzenbidean eta bide zuzenean ezartzen garen... Bai, hori da: *gaizki edo oker dagoena zuzen ezarri*.

Baina ez, nire lana ez da hori. Edo ez hori bakarrik. Gutxitan izaten baitut eskuartearen oker edo gaizki idatzitako testurik. Nire lana gehiago ikusten dut hiztegi bereko hirugarren, laugarren eta bosgarren adierekin loturik:

- 3 du ad. Gidatu, norabide jakin batean joanarazi.
- 4 du ad. Zerbait beste zerbaitetara edo norbaitengana bideratu.
- 5 du ad. Antolatatu.

Testu bat irakurtzen dugu; ulertzen dugu zer esan nahi duen testugileak, baina zerbaitek kirrinka egiten digu, ez digu uzten aurrera egiten, traba egiten digu. Orduan, elementu batzuk tokiz aldatu, ezabatu edo ordezkatu ditugu; edo koma bat gehituko dugu, edo puntu bat, edo puntu eta koma bat; edo proposamen bat egingo diogu testugileari, esan nahi duen hori beste modu batera esateko iradokizunak egingo dizkiogu. Bai, hori da: *gidatu, bideratu, antolatu. Eta proposatu, iradoki.*

EIZIEk aurtengo Literaturiarako antolaturiko solasaldian, Isabel Etxeberriak nabarmendu zuen itzulpengintzan eta testugintzan gabiltzanok oso ohituta gaudela elkarri laguntzen, zalantzak elkarrekin argitzen, elkarren testuak zuzentzen, eta bat nator berarekin. Horra, bada, hiztegiak ez dakarren baina zuzentzaile-lana definitzeko erabiliko nukeen beste aditz bat: *lagundu*. Zuzentzaileak testugileari lagundu nahi baitio esan nahi duen hori esateko modurik egokiena bilatzen. Polizia zigortzailearen etiketa jartzen digute maiz zuzentzaileoi. Halaber esaten da ospe txarreko lana dela, eta esker txarrekoa. Ez dut nik hala bizi. Esan bezala, aspaldi usatuak baikara elkarri laguntzera. Eta eskerrak ematera. Bada oraindik ere bere testuetan inoren eskurik sartzerik onartzen ez duenik edo besteren ekarpenik nahi ez duenik, baina testugile gehienek gogo onez hartzen dituzte zuzentzaileon ekarriak.

Julio Cortázarrek bere literatura-eskoletako batean kontatu zuen bere zuzentzaileak 37 koma erantsi zizkiola behin ipuin-liburu bateko orrialde bakar batean (ikus *Clases de literatura*, 2016). Ez zion arrazoirik ukatzen, baina berak argudiatzen zuen esan nahi zuen hori esateko ez zuela koma horien beharrik, barrendik zetorkion bultzadari obeditu beharra ziola testuari erritmoa eta musikaltasuna emateko eta horrenbestez sobera zituela koma horiek guztiak. Alegia, testu bat zuzentzen dugunean, funtsezkoa da egilearen asmoa eta helburua kontuan hartzea, eta halaber kontuan hartzekoa da ez dela gauza bera literatura-lan bat edo udal-bilkura bateko akta bat zuzentzea. Zuzentzaileak, beraz, testugilearen asmoetara ere egokitu behar du. Bai, hori da: *egokitu*.

Han-hemen irakurria dut zuzentzaileak ipi-apa jakin behar dituela hizkuntza-arau guztiak, gramatikakoak, ortografiakoak. Nik nahiago dut esan zuzentzaile batek aski duela jakitea arauak non begiratu eta argibide eske nora joan. Alegia, tresnak behar ditu, eta tresna horiek ongi erabiltzen jakin. Horren harira, testu hau idazten ari naizela, oroitu naiz azken urteotan *Senez* aldizkaria zuzentzen jardun dudala eta... Hortxe beste gako bat: zuzendu ere, *senez* zuzentzen dugu. Gramatikak, ortografia, estilo-liburuak, hiztegiak eta bestelakoak ezinbestekoak ditu zuzentzaileak, baina, zalantzarik gabe, sena da zuzentzailearen tresnarik eraginkorrena. Egunotan, duela hogeitun urte irakurri nuen liburu bat ari naiz berrirakurtzen, eta harritu naiz ikusirik arkatzez azpimarratuak ditudala zenbait hitz, esapide eta esaldi. Eta harritu naizela diot, gaur egun ere horiexek berak azpimarratuko nituzkeelako... Hori ote da sena?

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiot Garazi Ugalderi, testu hau *senez* zuzentzeagatik eta hobetzen laguntzeagatik. Bidelagun izateagatik. Horixe baikara zuzentzaileok, testugileen bidelagunak.

Amaia Apalauza Olló
2020ko urria